

EUSKO LEGEBILTZARRA. Ostiraletik aurrera Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Sozialista Abertzaleak deituko da

Batasunaren talde parlamentarioaren izen aldaketa onartu du Mahaiak

PSE-EEK kontrako helegitea aurkeztuko du

Agentziak | DONOSTIA

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Sozialista Abertzaleak izena izango du, ostiraletik aurrera, Batasunak Eusko Legebiltzarrean duen talde parlamentarioak. Izen aldaketa egun horretan argitaratuko baita Legebiltzarreko Aldizkari Ofizialean.

Talde parlamentarioek izena aldatzeko «soilik Mahaiari jakinarazi behar diote», Eusko Legebiltzarreko Mahaiak atzo adierazi zuenez. Mahaiaren bilkuran bozketarik ez zen izan, baina alderdi politikoei Batasunaren izen aldaketaz duten iritzia eman zuten.

EAJ, EA eta EB-IU ez ziren izen aldaketaren aurka azaldu; PP eta PSE, aldiz, bai.

Eusko Legebiltzarreko lehendakari Juan Maria Atutxak azaldu zuenez, Mahaiak Batasunaren izen aldaketa «onartu beste biderik ez zuen». Atutxak gaineratu zuenez, «argi dago» Batasunak «indarrean dagoen legediak dituen hutsune guztiak erabiltzen dituela; baina Mahaiak ezin ditu balorazio moral edo politikoak egin».

PSE-EEK auzitegiara joko du

Eusko Jaurlaritzako bozemaile Josu Jon Imazen hitzetan, «ulertzen dut sozialistei izen berria ez gustatzea, niri, abertzale naizen heinean, Sozialista Abertzaleak izenez deitzea ez baitzait gustatzen».

Izen aldaketaren aurkako helegitea auzitegietan aurkeztuko du PSE-EEK, Alderdi Sozialistako Gipuzkoako idazkari Manuel Huertasek atzo aurreratu zuenez. Bere hitzetan, «doktrina sozialistaren oso aurkakoa den, eta biolentzia bultzatzen eta laguntzen duen talde batek sozialista terminoaren usurpazioa eta inbasioa egiteak, PSEri zuzenki eragiten dio». Hala, «ez dugu inongo kasutan Batasuna gisa identifika gaitzaten nahi», esan zuen Huertasek. Bere iritziz, izen aldaketak hautesleen artean nahasmena sor dezake.

Espainiako Justizia ministro Angel Acebesek, berriz, Alderdi Politikoen Lege berriarekin lotu zuen Batasunaren izen aldake-

ta. Acebesen iritziz, «Batasuna korrika izena aldatzera joateak Alderdi Politikoen Lege berriak terrorismoarekin kolaborazioan egiten dituzten ekintzak zailtzen dizkiela adierazten du».



THOR CASTRO / EFE

PSEko Manuel Huertas eta Eusko Legebiltzarreko lehendakari Juan Maria Atutxa, Mahaiaren bilkuran.

Moyua

Bilbon, metroa 2,5 minutu behin

Agur betiko denbora estuasune

metro bilbao